# TXATA
## CHAT

09

**DEFINIZIOA**
**Zer da?**

Bi pertsonaren edo gehiagoren arteko komunikazio idatzia denbora errealean (sinkronizatua) ahalbidetzen duen interneteko zerbitzua da.

**DEFINICIÓN**
**¿Qué es?**

Es un servicio de Internet que permite la comunicación escrita y en tiempo real (sincronizada) entre dos o más personas.

**BALIABIDEAREN ERABILERA**
**Nola erabiltzen da?**

Txateatzeko honako baliabide hauek erabil daitezke:

- **Berehalako mezularitzako programak:** oro har doan erabil daitezke. Behera kargatu eta ordenagailuan erabili edo zuzenean linean erabil daitezke (aldez aurretik instalatu gabe). Ezagunenak Messenger, Google talk eta Skype dira, besteak beste. Txatean izan nahi diren solaskideak gehitu behar dira. Hori eginda, erabiltzaile-zerrenda bat osatzen da. Zerrendako erabiltzaile baten izenean klik eginez mezuak idazten has daiteke.
- **Zerbitzu hori ematen duten webguneak:** 'txat-gelen' zerbitzua ematen duen webgune espezifiko batean sartu behar da (txat-gela esaten zaie elkarrizketa sinkronikoa egiten den toki edo eremu birtualei). Txatean parte hartzen dutenek aldez aurretik adostu behar dute zer egunetan eta zer ordutan elkartuko diren. Txateatzen hasteko, lehendabizi goitizen edo nickname bat aukeratu eta hutsik dagoen eremuan idatzi behar da; ondoren, 'sartu' tekla sakatu behar da mezua bidaltzeko. Pantailan, elkarrizketan parte hartzen dutenek esandakoa agertzen da, bata bestearen atzetik. Sarreren zabalera mugatua da. Horrez gain, elkarrizketa pribatuak sor daitezke; horretarako, klik egin behar da gelako kideren baten "nick-aren" gainean.

- **E-learningeko ingurunea edo sare sozialak:** gune horiek txat-zerbitzua izaten dute, e-learningeko ingurune batean parte hartzen dutenek [Info gehiago 17. fitxan] edo sare sozial bateko kideek [Info gehiago 44. fitxan] hartu-emanean jardun dezaten.

Hiru modalitate horietan, elkarrizketak gorde egin daitezke beste noizbait berreskuratzeko.

**UTILIZACIÓN RECURSO**
**¿Cómo se usa?**

Para chatear se pueden utilizar:

- **Programas de mensajería instantánea**: en general son de uso grauito. Se pueden descargar, e instalar en el ordenador, o utilizar directamente en línea (sin instalación previa). Lo más conocidos son el Messenger, Google talk, Skype, entre otros. Requieren agregar a los usuarios con quienes se desea chatear y se va conformando una lista de usuarios. Pulsandon en el nombre de un usuario de la lista, se puede empezar a escribir mensajes.
- **Sitios web que ofrecen el servicio**:se accede a un sitio web específico que ofrece 'salas de chat' (denominación que reciben los lugares o espacios virtuales en los se produce la conversación sincrónica). Los participantes del chat deben acordar previamente día y horario de encuentro. Para comenzar a chatear, primero se escoge un apodo o nickname y simplemente se escribe en el espacio en blanco y se pulsa la tecla 'entrar' para enviar el mensaje. En pantalla aparecen sucesivamente las intervenciones de los participantes en el diálogo. Las entradas tienen limitada su extensión. Además, es posible generar conversaciones privadas, aciendo clic sobre el "Nick" de alguno de los miembros de la sala.
- **Entorno de e-learning o redes sociales**: en estos espacios generalmente se incluye el servicio de chat para el intercambio entre los participantes de un entorno de e-learning [Más info en Ficha 17] o entre los miembros de una red social [Más info en Ficha 44].

En las tres modalidades, por lo general se pueden guardar las conversaciones para recuperarlas en otra oportunidad.

**IKASGELARAKO GOMENDIOAK**

Komeni da onartzea txatak, denbora errealeko elkarrizketa denez gero, kode idatzien formatu tradizionalak apurtzen dituen estiloa sortzen duela; izan ere, erregistroak batu (ahozkoak eta idatziak) eta baldintza propioak hartzen ditu. Parte-hartze eta komunikazio dinamikoko kanaltzat hartzea da

garrantzizkoena, noranzko biko edo noranzko anitzeko elkarrekintza sustatzen duen eta graba daitekeen parte-hartze eta komunikazio dinamikoko kanaltzat hartzea, hain zuzen ere.

Hauek dira txataren **hezkuntza-erabilera** nagusiak: informazio laster eta zehatza banatu eta trukatzea, eztabaidatzea, dagokion gaia taldean aztertzea, arazo errazei irtenbidea ematea, eta sozializazioa.
Komunikazio-kanal baliotsua da beste ikastetxeetako ikasleekin elkarrekintzan jarduteko lankidetzako jarduera eta proiektuetan parte hartuz. Halaber, urruti bizi den aditu, ezagun edo senitartekoren batekin denbora errealean elkarrizketa egiteko erabil daiteke, edo denbora luzean eskolara joan ezinik egongo diren ikasleekin konektatzeko. Mikrofonoa edo webcama edukiz gero, komunikazioari audioa edo bideoa erants dakioke.

Txataren erabilerak aukera paregabea ematen du kodeei eta komunikazioari buruz eta igorleek eta hartzaileek kode berbera erabili eta ulertzeko premiari buruz jarduteko, baita elkarrizketaren eta desberdintasunekiko errespetuaren balioaz jabetzeko ere. Ikasleek hitz errazak eta esaldi laburrak erabili behar dituzte, baita aurpegierak ere (emozioak transmititzeko, karaktereak konbinatuz sortzen diren ikurrak), komunikazioa adierazkorragoa izan dadin.

Dinamikoa denez, ikasleentzat oso motibagarria da. Aldiz, nolabaiteko barreiamendua ere eragiten du. Elkarrizketa-koadroko sarrera berri bakoitzak aldaketa eragiten du elkarrizketan. Horrek, berriz, egoera berrietara moldatzeko gaitasuna sustatzen du.
Txataren erabileraren iraupena aldez aurretik ezarri behar da, betiere bertan parte hartzeak etengabe arretari eustea eskatzen duela kontuan izanik.
Txatean jardun ondoren, didaktikoki interesgarria izan daiteke txataren edukia aztertzea.

Irakasleak hainbat rol har dezake:

- Irakaslea txateko "moderatzailea" edo arduraduna izan daiteke, parte-hartzaileek aldez aurretik ezarri diren arauak beteko dituztela ziurtatzeko.
- Irakaslea txateko beste kide bat izan daiteke, betiere lantzen ari diren gaiari buruz duen esperientzia/ezagupena emanez.

- Irakaslea “kanpoan” gera daiteke; hots, ahalik eta esku-hartze gutxien egingo du, edo, are gehiago, beste “nick” bat erabiliko du.

Irakaslea “kolektiboa” izan daiteke, hots, bi ikasle taldetako edo gehiagoko kideen artean lankidetza-txat bat antolatzen duten irakasleen taldea.

## RECOMENDACIONES PARA EL AULA

Es conveniente aceptar que el chat, por ser conversación en tiempo real, crea un estilo que rompe con los tradicionales formatos de los códigos escritos, ya que funde registros (orales y escritos) y adopta condiciones propias. Lo importante es reconocerlo como un canal de participación y de comunicación dinámica, que fomenta la interacción bidireccional o multidireccional, y que tienen la particularidad de que puede ser grabada.

Los **usos educativos** principales son: la distribución e intercambio de información rápida y concreta, la discusión, el análisis colectivo, la resolución de problemas sencillos, y la socialización.
Es un valioso canal de comunicación cuando la interacción se da con alumnos de otros centros educativos con los que se participa en actividades y proyectos colaborativos. También puede utilizarse para entrevistar en tiempo real a algún experto, conocido o familiar que viva lejos o contactarse con alumnos que no puedan asistir a la escuela por un tiempo prolongado. Si se dispone de un micrófono o una webcam se puede añadir audio o vídeo a la comunicación.

Su aplicación es una oportunidad para hablar de códigos y de comunicación, de la necesidad de usar y comprender el mismo código (entre emisores y receptores), y también, para aprender el valor del diálogo y el respeto por las diferencias. Los alumnos deben emplear palabras sencillas y frases cortas, además de emoticones (símbolos que surgen de la combinación de caracteres que permiten transmitir emociones) para que la comunicación sea más expresiva.

Su dinamismo supone un componente motivacional destacable para el alumnado, pero también induce una cierta dispersión. Cada nueva entrada en el cuadro de diálogo supone un cambio conversacional, lo cual promueve la adaptabilidad a nuevas situaciones.
La duración del chat debe ser establecida de antemano, teniendo en cuenta la atención continuada que

supone participar en él.
Posteriormente, puede tener un gran interés didáctico el análisis del contenido del chat.
La actuación del docente puede ajustarse a diferentes roles:

- El docente como "moderador" o responsable del chat, para asegurar que los participantes sigan las reglas preestablecidas.
- El docente participante como un miembro más del chat, pero aportando su experiencia /conocimientos sobre la cuestión abordada.
- El docente "ausente" que minimiza sus intervenciones o incluso utiliza un "nick" alternativo.

El docente "colectivo", como grupo de docentes que organizan un chat colaborativo entre miembros de dos o más grupos de alumnos.

**GOMENDATUTAKO GUNEAK**
**Non aurki dezaket?**

**Txateatzeko programak**
**Google Chat**
http://www.google.com/talk/intl/es /
**Windows Live Messenger**
http://www.microsoft.com/spain/windowslive/messenger.aspx
**Yahoo Messenger**
http://es.messenger.yahoo.com/
**Zoho Chat**
http://www.zoho.com/
**Skype**
http://www.skype.com/
Konektatuta dauden erabiltzaileekin txat-saio bat egitea ahalbidetzen du (testuaren, ahotsaren eta/edo bideoaren bitartez)

**Skyperi buruzko tutorialak**
Skyperen erabilera - Bideotutoriala
http://www.youtube.com/watch?v=aaAVg8zGlgU

**Sakontzeko loturak**

AEBetako eta Venezuelako ikasleek Skype Video erabiliz izandako esperientzia.

http://www.youtube.com/watch?v=uvZdhahgUKE

Aurpegierei buruz:

http://es.wikipedia.org/wiki/Emoticono

**SITIOS RECOMENDADOS ¿Dónde lo encuentro?**

**Programas para chatear**

**Google Chat**

http://www.google.com/talk/intl/es /

**Windows Live Messenger**

http://www.microsoft.com/spain/windowslive/messenger.aspx

**Yahoo Messenger**

http://es.messenger.yahoo.com/

**Zoho Chat**

http://www.zoho.com/

**Skype**

http://www.skype.com/

Permite tener una sesión de chat con los usuarios que están conectados (mediante texto, voz y/o vídeo)

**Tutoriales Skype**

Uso de Skype - Vídeotutorial

http://www.youtube.com/watch?v=aaAVg8zGlgU

**Enlaces para profundizar**

Experiencia entre alumnos de USA y Venezuela con Skype  Vídeo

http://www.youtube.com/watch?v=uvZdhahgUKE

Sobre  emoticones:

http://es.wikipedia.org/wiki/Emoticono